



Lana / La obra

Liburu honek Bilboko Udalak antolatutako Miguel de Unamuno XVIII. Saiakera Lehiaketaren 2017ko deialdiaren euskarazko saria jaso du.

Gabriel Aresti behin eta berriro azaleratzen den poeta dugu. Bere izenaren eta poemen errepika eta errepliken gaineko hausnarketa plazaratzen du saiakera honek. Denboran atzera eta aurrera eginez, hainbat gertakizunen arteko mapa zabaltzen du. Horretarako, Arantzazuko Batzarra, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena, *Euskaldunon Egunkariaren* itxiera, Guggenheim Museoa edota Bilboko Aste Nagusia bezalako uneak eta guneak ditu hizpide.

Zer esan diezagukete etengabeko itzuleran bizi diren poetikek egungo euskal gizarte-ari buruz? Zer bitartekaritzek osatzen dute Aresti eta bere garaiarekiko irakurketa beti biziak? Iraganarekiko errepika traumatikotik haratago, afektu berriak katalizatzeke, bide berriak urratzeke, balio ote diezaguke Arestiren poetikak?

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Inor ez delako profeta bere mendean**
Egilea / Autor: **Asier Amezaga**
Saila / Colección: Saiopaperak - Pentsamendua eta gizartea, 21
ISBN / EAN: 978-84-9109-326-8
Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / Nº páginas: 216
Formatua / Formato: 14 x 22,5 cm

Egilea / El autor

Asier Amezaga (Getxo, 1986) soziologian doktorea da, *Harritik herrira, Gabriel Arestiren paperak euskal kultura eta gizartean, 1954-2014* tesiarekin. Euskal Herriko Unibertsitatean egin zuen doktoregoa, Espainiako Hezkuntza Ministerioaren bekarekin. Brnoko Masaryk Unibertsitatean ibili da euskara eta euskal kultura irakurle eta bere ikerketa-ibilbidea sendotu nahian dabil orain. Indaga gizarte-ikerketako kooperatibako kidea ere bada.

